

# 8 PROPOSAMEN LANGILEEN ORDEZKARITZAREN BIDEZ BERDINTASUNA BERMATZEKO

## SINDIKALISMOA MARTXAN

Langileen kontsultarako eta parte hartzeko eskubidea konstituzio-eskubidea da, Langileen Estatutuak eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak bermatua, eta Berdintasunerako Legeak aitortzen du eskubide honek duen garrantzia.

Berdintasun-planak negoziatzea lan-baldintzak hobetzeko aukera bat da, lan-baldintza orekatuagoak eta berdintasunezkoak lortzen lagunduko duten neurriak aplikatuz.

UGTko ordezkarien negoziazio-agendak zeharka txertatzen du emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa, berdintasun-planen negoziazioan aplikatzen duguna, eta horrekin guztiarekin bat etorritik, hauxe jotzen dugu beharrezkotzat:

**1. Lan-munduan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko legeria espezifiko eta propioa bultzatzea.** Bai Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginean araututako lan-harremanen eremuan, bai eta Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen administrazio- edo estatutu-izaerako harremanen esparruan ere.

**2. Berdintasun-ordezkariaren eta berdintasun-batzordearen figura sortzea lantokietan ordu sindikalekin eta berezko eginkizunekin,** lan-baldintzei berdintasunaren ikuspegitik eragiten dieten alderdi guztietan kontsulta egiteko eta parte hartzeko eskubidea bermatzeko.

**3. Hitzarmen kolektiboetan berdintasun-planetan negoziatutako ekintza positiboko neurriak sartzea,** diskriminazio-egoerak zuzentzeko eta diskriminazio-egoerak saihesten dituzten eta kontziliazio-, prestakuntza-, hautaketa- eta sustapen-eskubideak zabaltzen dituzten proposamenak sartzeko.

**4. Administrazio publiko guztietan berdintasun-planen negoziazioa bermatzea,** langile kopurua edozein dela ere. Ekintza positiboko neurriak txertatuz, bai lan-kontratudun langileentzat, bai funtzionarioentzat.

**5. Hitzarmen kolektiboetan lanpostuen eta eginkizunen izenak berrikustearen eta bateratzearen garrantzia planteatzea,** soldatak gardentasunez baloratzen lagunduz soldata-arrakala ezabatzen aurrera egiteko.

**6. Hitzarmen kolektiboetako klausula guztiak berrikustea,** langileen egoera kontuan hartuta, emakumeenganako diskriminazioan ezkutuan jardun dezaketen faktoreak aztertuta eta zuzenketa-neurriak planteatuta

**7. Negoziazio kolektiboko prozesuan berdintasun-neurrien jarraipen-batzorde bat sartzea.**

**8. Langileek negoziatio kolektiboko mahaietan ordezkaritza sindikal gisa parte hartuko dutela eta sindikatuak berdintasunari buruzko prestakuntza jasoko dutela ziurtatzea.**

